

BALIABIDEAK

Bezeroengana iristeko eta bezeroekin harremanak mantentzeko baliabideak nahitaezkoak dira. Baliabide hauei esker diru sarrerek lortzen dira. Funtsezko baliabideak adar ugaritan banatzea dira.

Hasteko, baliabide fisikoak beharrezkoak dira, horretarako sistema informatiko bat behar dugu, gure tanpoiak modu informatiko batean saltzeko gure web gunearen bidez. Hortaz gain, salmenta puntuak behar ditugu, gure kasuan gure inguruko merkatuetan salduko ditugu gure tanpoiak. Beste aldetik, banaketa sareak ere behar ditugu gure produktua gure herritik kanpo banatzeko eta gure enpresa nazio artera banatzeko.

Bestalde, baliabide intelektualak ere beharrezkoak izango dira gure enpresa aurrera ateratzerakoan. Gure kasuan, denak ez dira beharrezkoak baina beste batzuk aldiz nahitaezkoak dira: markak, izan ere, gure enpresak logo bat behar du eta horretarako logo propio bat sortu behar izan dugu; ezagutza, gure produktua nolakoa den jakin behar dugulako; patenteak, gure produktuaren eskubide guztiak edukitzeko; elkarteak, beste enpresa batzuekin egiten dugulako lan, eta bezeroen datu-baseak gure bezeroen helbideak eta datuak behar baititugu beraien etxeetara gure produktua bidaltzeko. Baliabide hauen erabilera efektiboa bada onura ugari edukiko ditugu.



Jarraitzeko, giza-baliabideei dagokionez, publizitate agentzia bat beharrezkoa dugu gure produktua merkatuan zabaltzeko eta ezagunagoa egiteko. Bestalde gaitasun komertzialak behar ditugu gure produktua enpresen mundura ateratzeko eta beste produktuekin konpetitzeko.

Finantza baliabideei dagokienez, nahitaezkoak dira gure proiektua aurrera ateratzeko. Hauen artean, eskudirua, kreditu-lineak, soldatak ordaintzeko, bestelako erosketak egin, negozioa bera zabaltzeko. Gure bezeroek produktuak eskuratzerakoan, kasu batzuetan eskudirua beharko dugu bueltak emateko. Bestalde, enpresa bat sortuko dugunez, kreditu-linea bat erabilgarria izango da nahi dugunean dirua eskura edukitzeko, adibidez gure soldatak ordaintzeko. Horrez gain, gure negozioa zabaltzeko beharrezkoak izango da finantziario hau bestelako ordainketak eta salerosketak egiteko ere.